

Legazpiko udalerrian
dauden
gazte-lokalak
erabiltzeko
jarraibide, gomendio,
aholku eta
konpromisoen
Gida

2011-04-07

Batetik, gazteek espazio propioa eta elkarrekin egoteko lekua behar dutela errebindikatzeko eta, bestetik, egoera horren aurrean eta sor daitezkeen arriskuen aurrean gurasoek eta lokal horien inguruko bizilagunek euren kezka azaldu dute. Hori aintzat hartu eta, azkenik, erantzukizun zibilari eta administrazioak duen erantzukizunari erreparatuz, Legazpiko Udalak joan den 2009an prozesu parte hartzailea ireki zuen helburu zehatz batekin: gazte-lokalen baldintza fisikoak eta gazteek lokal horiek erabiltzean bete behar dituzten baldintzak arautzea. Prozesu parte hartzaile horretan parte hartu dute gazteek, haien gurasoek, bizilagunek eta lokal horien jabeek.

Egin diren bileren eta sortu den demokrazia parte-hartzailearen ondorioz, elkar hurbiltzea eman da eta, horri esker, izaera kolektiboko proposamenak aztertu, eztabaidatu eta sortzea lortu da; horietatik gehienek herritarren adostasuna lortu dute gainera.

Horregatik, gazte-lokalak erabiltzeko jarraibide, gomendio, aholku eta konpromisoen Gida hau aurkeztu nahi du Udalak. Gidaren helburua gazte-lokalen eraginpean dauden interesak ez murriztea eta lokalak erabilera bizilagunen eskubideekin bat etor daitezela lortzea da, horretarako hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartuz. Gidan, lokalak erabilgarritasuna zehazten da, lokalak erabiltzeko baldintzak eta lokalak baldintza fisikoak finkatzen dira. Modu berean, lokalak funtzionamendu egokia zainduko duten bizikidetzarako protokoloan jaso diren arauak biltzen dira.

Hauek dira Gida honen oinarritzko helburuak:

1. Lokalak erabiltzeko baldintzei dagokienez, gutxienekoak araututa gera daitezela lortzea.
2. Lokalak, erabiltzaileen eta ingurunearen artean dagoen gatazka-maila murriztea.
3. Lokal barruan egin daitezkeen arautzea.
4. Inplikaturako sektoreek eskatzen dutenean, lokal-mota horiek erabiltzeko baldintzak egiaztatzea eta bitartekari-lanak egitea.
5. Legazpin dauden "lokal" horien egoera ezagutzeko: haien egoera, erabiltzaileak eta bertan egiten dena.
6. Udalerrian arau zehatz eta bakarrak izatea, inplikaturako sektoreen artean ematen ari diren gatazkek konpontzeko baliagarriak izango direnak.
7. Gazteek lokal pribatu bat euren aisialdirako erabiltzeak sor ditzakeen arriskuak murriztea eta txikiagotzea.
8. Udaleko Gazteria Sailak arriskuei eta arriskutsuak izan daitezkeen bestelako erabilerei buruzko informazioa bidaliko die lokalak erabiltzen dituztenei.

Gida ondoko pertsona-taldeei zuzentzen zaie:

- Araitutako baldintzetan lokala erabili edo alokatu nahi duten gazteei.
- Dagoeneko lokala duten baina erabilera-baldintzak hobetzeko aholkularitza jaso nahi duten gazteei.
- Lokal-mota horietan parte hartu nahi duten edo dagoeneko parte hartzen duten gaztetxoek gurasoei.
- Helburu horrekin lokala alokatzea pentsatu duten edo dagoeneko alokatuta duten lokal-jabeei.
- Euren etxe inguruan horrelako lokalak daudelako kezkatuta dauden udalerriko bizilagunei.

Udalak, bere aldetik, lokalen eta horiek erabiltzen dituztenen Erregistroa sortuko du, adostutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko xedearekin.

Gida honetan jasotzen diren jarraibideak urtebete igaro ondoren berrikusi egingo dira, sor daitezkeen egoera berriei erantzuna emateko asmoarekin.

Azkenik, egin dugun lanak bere fruitua eman dezan, Legazpiko Udalak gogora ekarri nahi du ezinbestekoa dela inplikaturako pertsona guztion arteko ERRESPECTU orekatua, bizilagunek atsedean hartzeko duten eskubidea eta gazteek ongi pasatzeko duten eskubidea azpimarratuz. Eta horretarako, ondoko protokoloa onartu da.

BIZIKIDETZARAKO PROTOKOLOA

Helburua: Protokoloak gazteen lokalen erabilerak sor ditzakeen gertakari eta arazo ezberdinak detektatu, bideratu eta konpontzen saiatzea izango du helburu nagusizat.

Erabilera: Lokalen eguneroko erabilera kudeatzeko erabiliko da eta edozein gatazka- edo desadostasun-egoerari aurre egiteko aplikatuko da; batik bat, inplikaturako alderdi guztion arteko adostasuna lortu ez duten gaitan, hau da, zaratek eta ordutegiak sor ditzaketen arazoetan.

Ordezkariek: Lokal bakoitzak eta etxe-bloke bakoitzeko bizilagunek ordezkari bat izendatuko dute.

Gazteek lokalaren izena erabil dezakete ordezkarietarako. Unearen arabera, haien ordezkari izango dena aukeratuko dute eta telefono-zenbaki bat emango dute. Gazte adingabeen lokala denean, gazte bat eta guraso bat izendatuko dira ordezkari.

Bileran adostuko da: batetik, bizilagunen ordezkaria nor izango den (administratzailea, interesa duen ...) eta, bestetik, etxe-bloke batean lokal bat baino gehiago egonez gero, bizilagunen zenbat ordezkari izendatuko diren (bakarra, lokal bakoitzeko ...).

Administrazioari jakinaraztea: Udaleko Gazteria saileko teknikariari jakinaraziko zaizkio aukeratuak izan diren ordezkarien izenak eta datuak.

Ohiko harremana: Bizilagunen eta lokalak erabiltzen dituztenen arteko bizikidetza bermatuko dutenak Gazteria saileko teknikaria eta beste sailtako teknikariak (udaltzaingoa, ...) izango direla onartuko da.

Urtero bilera egingo dute alderdi biek. Bileran ateratako ondorioak Gazteria saileko teknikariari jakinaraziko zaizkio, txosten batean jaso ditzan.

Aparteko gaien eta arazoen aurrean, alderdi biek bilera egitea adostuko dute. Bileran parte hartzea kasuaren eta gaiaren arabera erabakiko da.

Gatazka baten aurrean egin beharrekoa: Alderdietako batek gatazkaren bat dagoela antzemango duenean, bilera batera deituko die alderdi bietako ordezkariari eta arazoa euren artean konpontzen saiatuko dira.

Arazoa bilera horretan konpontzen ez bada, gatazkaren berri Gazte-txokoko hezitzaileei, Gazteria saileko teknikariari edo udaltzaingoari jakinaraziko zaio. Horiek izango dira gatazkaren inguruko fitxa beteko dituztenak eta udaletxearen eskuetan jarriko dituztenak. Ondoren Udalak bitartekari lanak egingo ditu. Horretarako, Gazteria saileko teknikaria edo beste pertsona bat izendatuko du eta negoziazio berrietarako bidea eskainiko du.

Elkar ulertzea ezinezkoa bada, dagokion administrazio-espedituari emango zaio hasiera. Bertan, gertatutakoa jasoko da eta hartu beharreko neurrien berri emango zaie lokal jabeari eta lokala erabiltzen dutenei. Gauza bera jakinaraziko zaie gaien zuzenean inplikaturik dauden udaletxeako departamentuei: Alkatetza, Ikuskaritza, Hirigintza, Idazkaritza eta Gazteria.

Udala: Udalak, bere aldetik, dituen eta eskaini ditzakeen baliabideak aztertuko ditu beharrezkoa den laguntza emateko, hala eskatuko zaion kasuetan.

Lokalen erabilgarritasuna

Lokalak gazteen topaleku dira, elkarrekin egoteko eta aisialdirako; beraz, erabat debekatuta dago:

- Edozein motatako produktuen salerosketa.
- Jarduera gogaikarriak burutzea.
- Edozein motatako materialak pilatzea, batik bat edari alkoholdunak eta produktu errekorrak.
- Inguruko bizilagunei eragozpenak sortuko dien edo eraikinaren segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein jarduerari ekitea.
- Sukaldeak, labeak, frijigailuak, plantxak edo keak garbitzea eta kanporatzea eskatzen duten bestelako etxetresna elektrikoak jartzea.
- Lokalean etxeko animaliak eduki, hazi eta gordetzea.
- Motoak, motozikletak eta antzekoak gordetzea.

Lokalen baldintza fisikoak

Hauek dira lokal batek izango duen gutxienerako hornidura:

- Ur korrantea, argia eta bainugela komunarekin eta konketarekin, behar bezala aireztatua.
- 21A-113b hautsezko su-itxalgailua, gehienez, 6 kilokoa 15 metroko, husteko tokitik irteeraraino. Su-itxalgailu horrek UNE 23-110-75 araua beteko du. Modu berean, CO2-ko itxalgailu bat jarriko da, lokalaren koadro elektrikitik gertu.
- Larrialdietarako argiak, barrualdea argitzeko eta lokaletik irteteko ebakuazio-bideak argiztatzeko nahikoa izango direnak.
- Apaingarri bertikalak eta horizontalak, kanpokoak nahiz barrukoak, behar bezala apainduta eta isolatuta egongo dira.
- Higieneari eta apaindurari dagokienez, lokalak gutxienerako baldintzak bete beharko ditu beti. Modu berean, lokalak aireztapen-sistema izango du, mekanikoa edo naturala, lokalaren higiene-baldintzak bermatuko dituena.
- Berogailu-sistema lokalaren instalazio elektrikoari egokitutakoa izango da.
- Sartzeko ateez lokalera iristeko baldintzak bete beharko dituzte. Modu berean, sendoak izango dira (suteari aurre egiteko) eta isilak.

Lokalak erabiltzeko baldintzak

Lokaleko 2 metro karratu bakoitzeko (komunak, biltegiak eta pasabideak kenduta) gehenez pertsona bakarra sartuko da. Dena den, dagokion fitxan lokala erabiltzen duten pertsona bakoitzaren izena eta datuak jasoko dira eta, lokalean ezingo dira aldi berean egon gehieneko edukierak markatutako pertsona-kopurua baino gehiago.

Lokal bakoitzeko erabiltzaileek erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko dute, besteri eragindako kalteak bere gain hartuko dituenak.

Erabiltzaileek zarata kontrolatu beharko dute, bai barrukoa bai kanpokoa. Ez dira musika instrumentuak joko, ez barruan eta ez lokalaren kanpoaldean. Modu berean, ezingo da kanpoaldera altzariak atera (mahaiak, ...) eta higiene-baldintza egokiak mantenduko dira, zaborra eta hondakinak bertan uztea saihestuz.

Hasiera batean ez da lokalak erabiltzeko ordutegi bat finkatuko baina bizikidetzarako arauak errespetatu beharko dute erabiltzaileek. Modu orientagarrian, indarrean dagoen legeak diotenaren arabera, lokal mota horien jarduerari ekiteko ordutegia goizeko 8:00etan hasten dela jakinarazten da. Lokalak ixteko eta erabat hustuta uzteko orduak, oro har, honakoak dira:

- Neguan: urriaren 1etik maiatzaren 31ra, igandetik ostegunera: 22:30ean; ostiraletan, larunbatetan, jai-bezperetan eta jaiegunetan: 23:30ean.
- Udan: ekainaren 1etik irailaren 30era, igandetik ostegunera: 23:00etan; ostiraletan, larunbatetan, jai-bezperetan eta jaiegunetan: 24:00etan.

Lokalen erregistroa eta eskatutako dokumentazioa

Udalak lokalen eta erabiltzaileen udal-erregistroa egin eta osatuko du. Horretarako ezinbestekoa izango da ondoren zehaztuko den dokumentazioa aurkeztea.

Udalak instalazioak titularrek aurkeztutako dokumentazio teknikora egokitzen diren ziurtatzeko asmoarekin egoera egiaztatzeko bisitak egingo ditu eta neurri osagarriak hartzera behar ditzake titularrak.

Ondoko hau izango da eskatuko den dokumentazioa:

- Lokalaren fitxa. Bertan honako datuak jasoko dira: eskaera egin duen pertsonaren datuak, lokalaren ardura duen pertsonaren datuak; adingabeak direnean, gazte-taldearen ardura duen pertsonaren datuak; lokala dagoen komunitateko presidentearen datuak; jabearen datuak. Horrezaz gain, lokalaren kokapenaren eta deskripzioaren gaineko datuak eskatuko dira.
- Alokairu-kontratuaren, jabetza-tituluaren edo idatziz egindako lagapenaren fotokopia.
- Gazte-taldearen proiektua, ondoko gaiak jasoko dituenak:
 1. Lokalaren deskripzio teknikoa: lokalaren ezaugarriak; guztizko azalera eta lokalak dituen gela bakoitzaren azalera (komuna, aldagela, ...); aireztapen-sistema; homologatutako su-itxalgailuaren edo itxalgailuen erosketa-erreziboaren fotokopia; horien mantentze-lanerako kontratuaren fotokopia eta larrialdietarako argiak.
 2. Lokalaren kanpoaldeko argazkia eta lokalaren oinaren planoa, sutearen aurkako babes-elementuen kokalekua zehaztuz, larrialdietarako irteerak
 3. Bizikidetzarako proposamena: bertan honako datuak jasoko dira: lokala erabiltzen duten pertsona guztien zerrenda eta adina; egiten dituzten ekintzak; lokala erabiltzeko erabiltzaileek ezarrita dituzten arauak eta bizilagunei eragozpenak ez sortzeko konpromisoa.

Udalak proposamena onar dezake edo, bestela, aurkeztutako Bizikidetzarako proiektuaren ordezkotzat proposamen bat eskainiko du.

Lokalen ikuskaritza

Urtero lokalen egoera ikuskatuko da, haien zerrenda eguneratuta izateko xedearekin. Alkateak, edo Hirigintza saileko zinegotzi ordezkariak, lokala ixtea agindu dezake dekretuz.

Lokalaren funtzionamenduan akatsak antzemanaz gero, bertako ordezkariari akats horiek zuzentzea eskatuko zaio eta eginbehar hori udaleko zerbitzu teknikoek ezarriko duten epean egin beharko da.

Indarraldia

Jarraibideen gida hau indarrean sartuko da 2010eko irailaren 1ean. Urtebeteko epea emango da, 2011ko irailaren 1era arte, gaur egun erabiltzen diren lokalak baldintza eta gomendio berrietara egokitzeko.

Sortuko diren lokal berriek hasieratik bete beharko dituzte hemen jasotako gomendioak.

Udalak beharrezko dokumentazioa eskainiko die gazteei, datorren 2010eko urriaren 30 baino lehen lokal bakoitzak bere bizikidetzarako proposamena aurkez dezan.